

Udazkenaren batera badator kros denboraldia

Udako berotasunak alde batera utzi ostean, udazkeneko freskura laister da gure artean eta baita kirola egiteko aukera ederra ere. Atletismoan makina bat urte daramatzan Lolo Garcia ermuarrarekin izan gara kirol honen inguruan berak urteetan egindako lanari buruz ari zeko.

Ikasturte hasierarekin batera, kirol ekintzei hasiera ematen zaie eta udazkeneko denboraldia osatzeko egokienetako bat krosa dela dio Lolo Garciak: *"Ikastetxez ikastetxe gazteei kroserako grina pizten saiatzen naiz. Kirol oso osasungarria da eta edozein kirol hasterako orduan krosa hasiera ona da"*. Urte asko daramatza honetan Lolok eta egun, beste kiroletan puntapuntan dabilzan gazte asko izan ditu bere agindupean, Alex Soto esate baterako. Hala ere, berak ez du harrobi lana egiten duenik goraiatu nahi, *"Betidanik atletismoa egiteko grina asetzen laguntzen dit. Atletismoa ia nire bizia da"*, onartzen du. Astero-astero ia arratsalde guztietan izaten ditu entrenamenduak. Aixolako urtegia, Anbre, Eibar eta inguruetan aritzen dira eta San Lorenzoko ikastetxean lantzen dute alderdi fisikoa. Gogor kritikatzan du Ermuan dagoen gabezia atletismoaren inguruan: *"Herrian dugun gabezia atletismoa egi-*



terako orduan izugarria. Ea Ongarain egingo duten kirolgure berriak etekinik ekartzen duen".

Adin ezberdineko kirolariak ditu. 8-9 urtetik hasita kadete mailara arteko gazteak entrenatzen ditu. Iaz 52 laguneko taldea izan zuten eta horietatik 7 federatu ziren. Lan hau egiterako orduan gurasoen parte hartzea, baita Mari Jose Reyes eta aurtan laguntzaile izango duen Jon Ander Lerinen lana ahaztu ezina dela dio Lolok. Era berean, Monroe lantegiko lankideek eskaintzen dioten aukera eta erraztasunak eskertzea ezinbestekoa da Lolorentzat: *"Beti txanda goizez izatea posible egiten*

di date arratsaldeez entrenamenduak egin ahal izateko".

Entrenatzaile nazional titulua eskuratu du Lolok eta makina bat ikastarotan parte hartu izan du. Atletismoko garairik zailena, ikasleek 14 urte betetzen dituztenean dela aipatzen du, *"Garai horretan kadete mailara pasatzen dira eta lehiakortasuna haundia izaten da. Ikasketak eta kirola tartekatzen hasten dira. Gehienak adin horretan uzten dute"*.

Iaz denboraldi polita burutu zuten bere taldeko kirolariak. Goraiatzekoak dira Iñaki Astoreka, Kattalin Olaizola, Ainhoa Izagirre, Nekane Praderak eta beste hainbatek lorturiko emai-

tzak, nahiz eta guztiek ere *"lan itzela"* egin dutela aitortzen duen. Kadete mailan, aipagarriak dira baita Crisitina Rojas eta Eider Gisasolak Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketan lorturiko emaitzak ere.

Urtean zehar, Euskal Herrian antolatzen diren kros froga ezberdinetan hartzen dute parte, tartean Ermuan antolatzen den kros txapelketan. Datorren urtean Atenasen, munduko joko olinpikoak izango dira eta hor dabil Lolo Ermutik bertara bidaiatxo bat antolatu nahian eta *"norbait animatzen bada jar dadila nirekin harremanetan"* gaineratzen du.

Asier Ibaibarriaga



KIROL MEDIKUNTZA

indartu



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- ERDITZE-AURREKOA, ERDITZE-OSTEKOA
- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESORTZU PROBAK

- KONTSULTA ETA ERREKONozIMENDU MEDIKOAK
- ESKUZ EGINDAKO VODDER DRENAJE LINFATIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@indartu.e.telefonica.net